

Joseba Azkarraga Etxagiksel

SOZIOLOGOA, MUKO IRAKASLEA

Lau krisi erraldoi

Ez da bakarrik bankuen kodizia izan. Herritar gehiegi liluratu du kapitalismo finantzarioaren asmakizun bitxiak: kolperik jo gabe, etekin handiak poltsikoratu. Ikusi bestela, euskal herritarren artean burtsak duen harrera ona, baita *progresista* askoren artean ere. Herri-kapitalismoa guk (ere) aupatu dugu dagoen lekura, eskrupulu moralak okasio handietarako gorde ostean.

Denok eraiki dugu sistemaren likido amniotikoa. Eta orain, urrezko arrautzen oilo finantzarioak utzi dionean kikirriki egiteari, beldurra disparatu da. Logikoa da, klase ertainaren zutabeak kolokan jartzen hasi baitira. Ohe zapitik atera eta aurrez aurre begiratu behar genioke gaurko deskalabruari, ez baita soilik eredu ekonomikoaren deskalabrua.

Gutxienez lau dira krisi erraldoiak. Bat, kapitalismo globalaren bertsio finantzario-espekulatiboaren krisia, eta honek ekonomia errealean duen inpaktua: lauetatik, garrantzi gutxienekoa. Bi, aldaketa klimatikoa: gure larreei kolore berdea desagertuko zaielako kezkatzea, txatxukeria nostalgikoa da etor daitekeenarekin alderatuta. Hiru, erre-gai fosilen agortzearen ondorioz bizi(ko) dugun energiaren krisia: gure zibilizazioaren oinarriak jarriko ditu hankaz gora, eta euskal herritarren hiperdependenzia energetikoak



KARLOS CORBELLA

bai, horrek ohe azpian ezkutatzera gonbidatzen du, Marte kolonizatu edo Espainia demokratizatu arte. Lau: planetan hazten ari den populazioa elikatzeke zailtasun hazkorra.

Bizi duguna, funtsean, zibilizazio krisia da. Eta eredu produktibistak ez du errezeta egokirik bizi ditugun dilemak konpontzeko. Arazo ekologiko-sozialak ez du konponbiderik sistemaren barrutik. Gero eta sinesgaitzagoak dira abiadura moteltzearen aldeko diskurtsoak, edo “erreformakeria” berdeak. *Fast food* produktuen kalteak ikusita, *McDonald'* sek entsaladen alde eginiko apustuaren traza dute.

Hilerriaren ezina dario Mendebalde kapitalistari. Zerk ordezkatu du? Hori izango da hurrengo 25-50 urteetako eztabaida politiko nagusia. Euskal lurraldean espazio mental handiagoa utzi behar genioke ezbaia horri. Eragile politiko, enpresarial, sindikal, sozial eta kulturelek, denek serio heldu behar liokete, baita herritarrok ere. Eta beste inork baino ausartago, gure herrian sortze behar lukeen ezkerreko polo subiranistak.

Bigarren trantsizio politikoaz gain, ohe azpitik atera eta hitz egin behar genuke XXI. mendean egin beharreko trantsizio erraldoiaz. Iraunkortasuna helburu izango duen horretaz. Hazkundera eta kontsumoa ez den proiektuaz. ■

«
Bizi duguna, funtsean, zibilizazio krisia da. Eta eredu produktibistak ez du errezeta egokirik bizi ditugun dilemak konpontzeko
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Urte zenbait atzera, inguruan ezagutu genuen orain berriki-

tan berari gertatua. Lagun pare batek jasadakoa ekarri digu gogora. Era berdintsuan gertatu zenez, batena kontatzea aski izango duzue. Lanera zihoazela ohiko bidetik kotxez, bost bat tipok zibilez mozorrotuta beren autoa trabeskatu, kotxetik aterarazi, berenean sartu eta mendiko borda batera eramane zuten. Bertan, egun erdiz galdezkatu ondoren, lagunak sala zitzaizkan estu-estu saiatu ondoren, haiek kolaboratzera behartu nahi izan zuten era guztietako amenazoak erabiliz. Ordu batek egun osoaren luzera

Lander Fernandez

duen egoera hartan arratsa arte bahituta eduki eta kolaboratzeaz gain, gertatutakoa inori ez kontatzea agindu zioten. Lagun biek, abokatuari esan zioten publikoa egin gabe. Denboraldi batez haien deiak, ele erronkatsuek eta kontu eskatzeak jasan behar izan zituzten. Landerri gertatua ez zitzaidan berria egin. Eta oraingo kartzelatzea ere ez, publikoa egin zuelarik bururatu baitzitzaidan horrelako zerbait gerta lekiokela. Eta Jon Anzaren desagertzea, inpunitate jarduera berberaren ondorioztat dut, inguru hurbilean pairatzen diren dramaren erakusle, ekidistantziatik urrun gelditzen direnak, bakardadean igaro beharrekoak. ■